

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabán, Asparrenako udalerrian, Asparrenako Ametzagan (2. poligonoko 1509. lursaileko) egur-biltegi batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2020-0016

Eskatzailea: Eloy Corchero Martínez de Guereñu

Eloy Corchero Martínez de Guereñuk eskatu du Asparrenako udalerrian, Asparrenako Ametzagan (2. poligonoko 1509. lursailean) egur-biltegi batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena.

Horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 24a

Isurketa arduraduna

AITOR BELDARRAIN URIONDO